



Irudia: Gure Esku Dago Portugalete

Atzo herri galdeketa egin ziren Araba, Bizkaia eta Nafarroako hainbat herritan. Ariketa honen bitartez, Gure Esku Dagok erabakitze eskubidearen aldarrikapena plazetara atera zuen. Horien artean, Ezkerraldeko lehenengo galdeketa egin zen Portugaleten. 3389 lagun parte hartu zuten ekimenean, “Nahi duzu euskal herritarrok gure etorkizun politikoa aske erabakitzea?” galderari erantzunez. Eguna jai giroan ospatu zen eta bozketaz aparte kale animazioa eta bestelako ekimenak egon ziren Portugalete giroten.

Emaitzak:

Bozkak/Votos: 3389

Bai/Si: 3333 (%98,38)

Ez/No: 44 (%1,30)

Zuriz/En blanco: 8 (%0,24)

Baliogabeak/Nulos: 4 (%0,09)

Parte-hartzea/Participación: %8,3